

# ANAITASUNA

VI URTEA - N.º 67

Suplemento de la Hoja  
ANAITASUNA de Guipúzcoa

Abendua (12) 1959

Bilboko Arenalean, aurtengo irailaren 6-an egin zan Bizkaiko Bertsolarien Azken Txapelketa Nagusiaren gora beerak oso osorik emoten doguz ANAITASUNA-ren irakurleentzat. Bertsoak ukutu txikiren batzuk besterik eztaukiez neurriak eta utsunak betetako egin direanak.

## Bizkaiko Bertsolarien Bigarren Sariketako Azken-Txapelketa Nagusia

Alfonso Irigoyen: Agur jaunak. Arratsalde eder eta zoragarri onetan emen gagoz guztiok pozez beterik Bizkaiko bertsolarien azken-txapelketa nagusia egiteko. Laster emongo deutsalgu asierea, eta, emon baiño leen, eskerrak biotz barru harrutik Bizkaiko bertsolarien sariketa onetan lagundu deuskuen guztieri, bai Bizkaiko Diputaziño, Bizkaiko Ahorro-Kaxa, —dirutan eta kopatan ainbat laguntasun eder emon deusku— eta bai Bizkaiko errietako alkate jaun, Bilboko Ayuntamentu, bertsolari, eta zelanbait lagundu daben guztieri. Euskaltzaindia prest daukaze oso osoan euskerea zainduteko, gordetako, aberastuteko, eta orretan beti gogoz ekiteko.

Laster emongo deutsalgu asierea txapelketeari. Baiña lenago esan bear deutsalgu zelan Bizkaiko errietatik zear ibili garean bertsoak zabalduen, eta zelan ainbat bertso-liburu zabaldu doguzan "Euskal kantak" izenagaz. Orregaz gure gogoia da Euskalherri osoan, eta orain Bizkaian, bertsoak zabalduen, al dala gazte-jenteak ikasi, buruz ikasi, eta bertsolariak ugaritu daitezun. Ain zuzen be, bertsook ikasten dabezan Bizkaiko neska mutil gazteak, datorren urtean Euskaltzaindiak egiten dauen esamiña batera etorri leitekez. Esamiña orretan itanduko jakiez: bertsook buruz ikasita, kristiñau dotriñea, eta beste gauzatxu batzuk, eta sari ederrak emongo jakiez ondo ikasten badabez. Alegiñak egin jente gazteak ikasi daien. Orain emen eztaukaguz liburuak, baiña iñok gura baditu, gero, au amaituta gero, joan daitela Euskaltzaindira, orra Erribera kalera, ortxe bertan dago, eta antxe emongo deutsalgu. Bost peseta besterik eztau balio, eta bertan ainbat bertso eder datoz, bai bertso zarrak, bai bertso barriak, emen dagozan bertsolari batzuk be ipiñi dituezanak.

Beste gauza bat oraindiño: Luzio Elorza hertsolari jaunari kopa eder bat emongo deutsalgu. Ain zuzen be, bera da sariketa onetara etorri dan bertsolaririk zarrena. Bermeen agertu zan eta bigarren gelditu, baiña apurtxo bat gazteagoa izan balitz buruko min andiak emongo eutsezan gazteeri. Ikusten da zelan bere gazte denporan bertsolari ona izan dan, baiña orain, bere zartzaroagatik, apurtxo bat gortuten asia da, baiña merezimentu asko ditualako, eta, ya, denpora asko izango eztauelako sariak irabazteko, kopa eder bat emotea erabagi dogu Bizkaiko bertsolarien aitona izentaurik. Oleaga jaunak oraintxe bertan emongo deutsalgu kopea, eta berak bertso batzuk esango deutsalgu.

Luzio Elorza jauna, urreratu aurrera eta D. Nazario Oleaga Euskaltzaindiko sekretario jaunak emongo deutsalgu kopea.

1	6	10
Arratsaldeon eman deigula Santu ta Birjiñak Mundu nai zerurako Lagun atsegiñak.	Neure lagun batzuek Ere gaur badia Balentin Enbeita ta Irigoyen jauna ta Don Jose Etxeandia	Lengo kontuak akordatzia Alperrikan dia Berriz ikusi orrek Gaitz izango dia.
2	7	11
Kantuan eingoitugu Geure alegiñak Eztu oin balioko Leen uts egiñak.	Ia naikua det nik Samia galduta Len ona nintzan baiña Oin nago zartuta	Lenengotik artu det Emen propiña Gero eztakit zer dan Oin baukat kopia
3	8	12
Emen esango deutset Euskaldun daneri Zela tokaten jatan Egun au gaur neri	Geiagorik ez artu Gaurko au artuta Neure ofeziyua Daukat ugartuta.	Zer etorri badago Men edango dia Gitxi baiño ezpada Kabiñuko dia
4	9	13
Zartuta nago ia Oindikan agiri Gerokuari begitu barik Oraintxe nabil ni.	Munduko gauza asko Onela oi dia Neri pasatu jatan Gazte denporia	Au da lenengotatik Daukadan lan ori Gaizkirik esatera Ez nua iñori
5		14
Ainbat lagun on emen Aurrean gaur dia Bilbon ainbat euskaldun Ortxe batu dia.		Atzo pasau jatana Pentsatzen det neri Eskerrik asko orain Plubiko danari.

Irigoyen: Bertsolari onen izenean ohore andi bat egiten deutsegu orainarte Euskal-errian izan direan bertsolari andieri. Askok, bear bada, gitxi ezagunak izango dira, baiña eurari eskerrak, orainarte iraun dau Euskalerrian doai eder eta zoragarri onek. Txaloak Luzio Elorza jaunari! bere izenean, orainarte izan direan bertsolari guztieri ohore egiñik!

Eta beste barik asiorea emongo deusagu azken-txapelketa nagusiari. Lenengo sortea egingo dogu. Gaiak juraduak guztiz ixilean izan ditu orainarte, eta bertsolariak eztakie zer itanduko jakien. Ain zuzen be, puntuak eta gaiak txapel baten sartuko doguz eta bakotzak bereak aterako ditu eta areri erantzun bearko deutso. Orain sortea egingo dogu.

Tokau jakie: 1. Alberdi; 2. Azpillaga; 3. Enbeitia; 4. Ormaetxe; 5. Pujana; 6. Sar-  
dui.

Lenengo emen zagozien guztiori baktotzak agurrezko bertso bana botako deusue. Jose Alberdi jauna izango da lenengo. Erdu ona.

<p>Alb. Arratsaldeon eman ondoren Asi nai nuke lanian Eztakit zelan maulduko naizen Ainbeste jente aurrian Azi ederrak erain dituez Euskalzalien artian Landarak ere ikusten nago Gaur emen Arenalian Aspertu gañe jarraitu daigun Baktotzak bere zallian Euskal oiturok bizi daitezcan Uri eta baserrian Diferentziok utzi daiguzan Jetxi ta alde batian Gorroto biziz ikusi gendun Zer igaro zan lenian Amaika anai errubakuak Estaldu ziran lurpian Mundu onetan bizi gaitezcan Anaikor maitasunian Jesus Maisuak lagundu deiskun Zeruetako atian.</p> <p>Azp. Ondarruako gazte apal bat Zugana dator kantari Bilbo maitea zu ikusita Sentitzen naiz ameslari Aurre aldera begiratzea Benetan da zoragarri Zar eta gazte andre ta gizon</p>	<p>Kaletar nai nekazari Bizkai guztik etorri dira Jarraituz zure deiari Batasun onek itxaropenak Eman bear Bizkaiari Esaten datoz prest dagozala Oratuteko lanari Uzteko bide okerrari Lotuteko zuzenari Ta euren biotzak oso eskeintzeko Geure ama euskerari.</p> <p>Enb. Igazko urtian emen ginian Zazpi bertsolari txiki Aurtengo urtian banan banango Sei txapeldun gara etorri Pujana Ormaetxe Sarđui Azpillaga Enbeita eta Alberdi Igazitik ona bertsolariak Bizkaian dira ugari Eskerrak emon bear deusaguz Gure Euskaltzaindiari Urte betian berak ein dauen Lan goragarriagaitik Eta zuontzat anai ta arreba Eleizgizon ta agintari Bertsolarien besarkadarik Anaikorrena danori Txapelketa au izan dagigun Guztiorrentzat pozgarri</p>
--	--

Biotzez otoi egin deiogun  
Geure Begoñako Amari.

Orm. Arratsaldeon opa deutsuet  
Etorri zeratenari  
Biotz barruti agur eder bat  
Bizkaiko Euskaltzaindiari  
Ezertxu ere kendu egin gabe  
Araba Nafarroari  
Besarkada bat Gipuzkoako  
Anaia ta arrebari.

Puj. Gure artian sarri izan dira  
Samiñak eta illunak  
Zorionean poz apurtxo bat  
Badeusku gaurko egunak  
Ume txikia poztuten dunez  
Amaren berba bigunak  
Zuen biotzak poztu daizala  
Guk emen esangogunak  
Ondo etorriak izan zaiteze  
Orain emen zagozenak

Epaikariak Obispo jaun ta  
Bai beste entzule danak  
Agur gozo ta besarkada bat  
Opa deutsue Pujanak  
Ta Jaungoikoak gorde zaizela  
Biotzeko euskaldunak.

Sard. Ainbeste zar ta ainbat jakitun  
Ikusiz nere aurrian  
Lotsaren lotsaz jarriten naiz ni  
Ia mutu biarrian  
Baiña onera etorri ezkeru  
Jarraitu biar lanian  
Zarrak parkatu baiña ni noa  
Gaztea orren sasolian  
Emen badago etorkizuna  
Eurak gura dutenian  
Gazteok ekin zeuen lanetan  
Jarrai zintzo bidian  
Gure euskera sendotu daiten  
Jarraitu gogor lanian.

Irig.: Agurra egin ostean beste bertso bana botako dabe. Bana banaka. Bilboko Atletikoa zelan zuzendu eta indartu leitekean. Lenengo Alberdi Mañarikoak.

Alb. Zuzentza ori ez al daukagu  
Begien aurrean argi  
Dudatxoren bat zure aldez badao  
Alpontoa belarriak zoli  
Batzar artako agintariak  
Ondo dakielako ori  
Ona erbestetik inõrtxo bere  
Eztabe egiten ekarri  
Naikoa ere dirazelako  
Urtenekoak bertati  
Geuria izanda zeifiek ez maite  
Biotzetikan Atleti.

Euskaldun utsez izatekotan  
Gaur arte zein dan nagusi  
Dударik barik mundu guztian  
Bilboko gure Atleti.

Orm. Maitagarria gure Atleti  
Bizkai guztiarentzako  
Ederragorik lur onetara  
Iñoiz etorri ez dalako  
Gaur bere goitik egongo leite  
Dirautsuet entzuteko  
Zorioneko maitagarria  
Ezauna dana dalako  
Naiago neuke gaurkoan bere  
Zarra gaztiao balego.

Azp. Nik esan nai det zer bear duan  
Bilbo Ateletikuak  
Adar ederrak ematen ditu  
Zugaitz sustrai onekuak  
Beste errietan or ostikoka  
Dabiltz atzerritakuak  
Onuntz etorri ta emen dagoz  
Guziak apurtzekuak  
Guk kanpotarrik ez degu bear  
Naiko dira etxeakuak.

Puj. Gure Atletik orain badauka  
Emen zuzendu biarra  
Emen daukagu gaur Joma jauna  
Ezta zuzendari txarra  
Atletik baki nondik dadukan  
Garaitzarako izarra  
Ta orainarte lez beti izango da  
Nagusi Atletitarra.

Enb. Oizko beliak esaten dabe  
Oizera nai dau beti  
Zetan esan bez begiak argi  
Danak bere kabiari  
Erri guztiak euren jokoak  
Gaur arte dituez euki  
Geuk be alantxe pelotariak  
Palankari ta aizkolari

Sard. Ezta erreza loka dagoan  
Ormia sendotutia  
Aspalditxuon gure Atleti  
Daukagu naiko lokia  
Martxa orretan kostako jako  
Gauza andirik egitia  
Sendotzeko nere ustez beintzat  
Onen onen txuletia.

Irig.: Eta orain, biñaka agertuko dira. Lenengoa bigarrenagaz. Irugarrena laugarrenagaz, eta bosgarrena seigarrenagaz. Lenengo, puntu bana ipiñiko deutsegu. Nik asi ta eurak amaitu bear dabe bertsoa. Eta gero temarako gaia emon. Eta azkenez alkarrerri punta ipiñiko deutsie. Lenengo agertuko dira Alberdi eta Azpillaga.

Irig. Zelan ibili zara Lekeitio aldetik?

Alb. Guztiz dotore etorri naiz ni ona bertatik  
Jan eta edan egin det inõren lepotik  
Baita txurruta bere zedorrenagatik.

Irig. Euskaldunak begira eta gu kantari

Azp. Zerbait esan beaiot gaur Arenalari  
Kanpotik etorri dan jente guziari  
Biozkadak ematen dizkiet danari.

Irig.: Teman ekingo deutsie. Bost bertso bakotxak. Alberdi izango da argi kobratzaillea, eta Azpillaga ugazabandrea, etxeoandrea.

- |   |   |
|---|---|
| Alb. Zetanbaitetik jan bear eta<br>Naiz ni errukarria<br>Alper alperrik joatelako<br>Mundu ontako denporia<br>Ara ta ona aspertu gabe<br>Badet jira ta bueltia<br>Alperreko da etxeoandra oni<br>Sasoz atea jotia.          | Azp. Onek esan dun lizunkeria<br>Ez iñork goguan artu<br>Etoritzen da ta ateik jo gabe<br>Igual etxera sartu<br>Ez det nik ezer entenitzen da<br>Berak nai duna kobratu<br>Zuzentxuago ibili bear<br>Nai ez badek kondenatu.    |
| Alb. Dotore samar esan ditu onek<br>Txaloz berotu dozue<br>Baiña oindio kobratzailleak<br>Argirik dauka gogue<br>Itaun txiki bat ziaro bertan<br>Bero ni egiten nue<br>Nun eta dauka ori ola bada<br>Onek an errezibue.     | Azp. Zuk emandako errezibuak<br>Etxian nik aintxen ditu<br>Etorri eta pare bat duro<br>Geiago kobratzen ditu<br>An artutako diruarekin<br>Tabernak pasatzen ditu<br>Daukan jornalez zelan ibili<br>Onek ostuko ez balitu.       |
| Alb. Badakizute lenaoko zorra<br>Ez ein ainbeste zarata<br>Erri ta erbeste aspalditxotik<br>Ondo zagoz ezaututa<br>Nere biotza lenago bere<br>Baita orain bere galanta<br>Orain osua parkauko deusut<br>Emen erdia pagauta. | Azp. Bere burua gezurrak esan<br>Ta jarri nai du apaña<br>Etzaitetz izan orrelakua<br>Etzak jenderik engaña<br>Au etortzen da nere etxera<br>Ustean alako fiña<br>Falta orretxek ditu bakarrik<br>Bestela forñal da baiña.      |
| Alb. Etxeko andra eskasak ere<br>Atxakia dau ugari<br>Baiña ez uste engaño barririk<br>Emangoustezula neri<br>Berbaz asi ta lagun aurrian<br>Onek zerbait badiruri<br>Artu emanetan geiao gurutso<br>Onrrai baiño diruari.  | Azp. Nik esandako egi au beintzat<br>Zuk etzezu ukatuko<br>Lendik guztiak kobrauta dezuz<br>Berriz ez dek kobratuko<br>Au emen dabil nun edo andik<br>Niri ziria sartuko<br>Nik emandako baso erdirik<br>Berriro ez dek artuko. |
| Alb. Erdika emen ibili gabe<br>Esan bear da guzia<br>Gauza ederra azken orduan<br>Izango garbi egotia<br>Ez det eskatu orain artian<br>Izan eztana neria<br>Gauza ederra dalako emen<br>Bakotxarentzat beria.               | Azp. Au esan arren jendia rentzat<br>Ez da ba izango kalte<br>Zuen moduko kristauagandik<br>Obe da bizi aparte<br>Aurrian zauden emakumeak<br>Gaur enteratu zaitetzte<br>Argi kobratzen zabilzatenak<br>Denok bardiñak zerate.  |

Irig.: Orain puntua alkarrerri ipiñiko deutsie.

Alb. Zer da biarrekuena zerura joateko?

Azp. Obispo ta apaizak daude ori esateko

Alb. Amar mandamentuak ikasi lenengo

Azp. Oindio biar ori zagoz egiteko.

Azp. Arenaleko jentia zer zatzu iruri?

Alb. Geienak ikusten det dagozala argi

Azp. Danok belarri alerta aditzeko guri

Alb. Eskerrak eman bear euren txaloari.

Irig.: Onegaz amaitu dabe Alberdi-k eta Azpillaga-k, eta orain Enbeita eta Ormaetxe-ekingoa dabe.

Irig. Gure euskerea sendo biziko da beti

Enb. Orretako lanian jarraitu gogoti  
Gaurko antzera ainbat badaitez etorri  
Bultz egingo deusagu euskera zarrari.

Irig. Txoria izatekotan zer gura zeunke izan?

Orm. Mundu onetan obeto bizi izar gisan.  
Asieratik danak or balira olan  
Geure antzeko guztiok ori izango ziran.

Irig.: Temarako gaia. Enbeita izango da neskatilla gaiant baten aita eta Ormaetxe mutil zarra.

Enb. Ainbat urtian arturik daukat  
Neure ezkon buztarria  
Jainko bidetik ekarririkan  
Baita ederra sendia  
Semeak baitut gafiñera barriz  
Dotorea alabia  
Mutil zar onek oraintxe egin deust  
Beretzat eskabidia.

Orm. Nola izan lei eskari ori  
Sobran dunari egitia  
Eneuke gura opazka daonai  
Artutia alabia  
Neronen ustez ak eukiko dau  
Aren batian tranpia  
Oba izango da beste bateri  
Al badot jarraitutia.

Enb. Mutil zarretan beti egoten da  
Barren barrendik tranpia  
Orrexegaitik igarri barik  
Etorten jake zartzia  
Onek gura dau neskatxa polit  
Bikaiña or billatzia  
Mutil zarrentzat neure ustian  
Joan da ortako sasoaia.

Orm. Ez det uste nik oraindikarren  
Daguazanik belurik  
Oindiñokarren zar edo gazte  
Topateko ez det bildurrik  
Baiña barruan gogo bat daukat  
Biotzeraiño sarturik  
Zar ein ezkerro zetan artukot  
Ez badaukia dirurik.

Enb. Gauza ederra da mundu onetan  
Onek diñonez dirua  
Diru ta emazte bietan dauka  
Baiña sarturik burua  
Dirua nai dau ondo eroateko  
Berarentzat zartzarua  
Zartzaro ontan andrea barik  
Izango kanposantua.

Orm. Sekula bere gaur arte beintzat  
Ez det pentsau olakorik  
Zarra naiz baiña oindiño ez det  
Uste nik il egiterik  
Mundu ontara etorri gera  
Jaungoikuak ekarririk  
Nora arrajo juango naiz ni  
Berak deitu egin barik

Enb. Aitu gura ta aitu be eziña  
Au da daukagun penia  
Mutil zar onek nere ustian  
Gaur dauka naike tranpia  
Ezkondu gura ezkondu ezin  
Ezin billatu andria  
Andria baiña naiago du onek  
Tabernan txurrit eitia.

Orm. Danak dirade bardiñeko olan  
Nai bada ulertutia  
Beronek bere laster aurrian  
Amaitu egin dau kopia  
Ze gauza ederra ainbesten aurren  
besten erru ematia  
Uste ete dezu nere adiskide  
Orregaz engañetia.

Enb. Arduan eta diruan onek  
Gaur egiten deusku amets  
Zartuta egonda ez zara olan  
Ezkondu izango errez  
Zulangoari jasoten jako  
Mutil zar askori legez  
Etxe ondokua iñok eruan  
Eta kanpuan topau ez.

Orm. Uste dau onek berba orregaz  
Ni ikaratu egitia  
Nai dauena da igarkozue  
Emon niri alabia  
Igual izao da eztakit baiña  
Bera edari zalia  
Oba egingozu nire adiskide  
Beste bateri ematia.

Irig. Puntua alkarreri:

Enb. Zetan etorri gara gaur Arenalera?

Orm. Bakotxak egitera al dauen erara

Enb. Bigarren txapelketa pozik jokatzera

Orm. Naiago lengo lepua eruan etxera.

Orm. Zetan etorri zara gaur Enbeita ona?

Enb. Txapelketan jokutzen emen al doguna

Orm. Ai banenduke nik an len euki nuena

Enb. Laster ikusiko da zein garen onena.

Irig.: Amaltu dabe Enbeita eta Ormaetxe-k, eta orain Pujana Zeanuriztarrak eta Sar-  
dui Muxikakoak ekingo deusie.

Irig. Lurretik zeruraino zeinbat metro dira?

Puj. Oraindiño ez dot neurtu on arren begira

Gu ara eldu orduko luzatuko dira

Pozik joango nintzake ni garbitokira.

Irig. Gura izango zeunke txapela irabazi?

Sard. Ortako bertsoetan biar da ikasi

Gero onena zein dan juezak ikusi

Buru txikia daukat ta eingo dau igesi.

Irig.: Temarako gaia au da. Pujana izango da ugazabandrea, etxeoandrea, eta Sardui neskamea, kriadea.

Puj. Gazte ta indartsu nintzanian ni  
Eneukan biar izenik  
Eta orduan nire etxean  
Bear be ezan neskamerik  
Baiña oragin daukadazanez  
Indarrak be urriturik  
Etorri zaitetz neskame ona  
Gogoan ondo arturik.

Puj. Zorionean ondo asi gara  
Ta sartu gara nastean  
Zu ondo izaten baldin bazara  
Egongo zara etxean  
Ezaitut iñoz bialdu egingo  
Nire etxetik eskean  
Nire etxean salda beroa  
Eukiko dodan artean.

Puj. Andra ona lez entzun dot eta  
Oragin esan dabena  
Bildur bagarik egin eidazu  
Nire etxean dan lana  
Laguntasuna emongo deusut  
Al dodanetik al dana  
Bakarrik naiz ni etxean eta  
Gero zeuretzako dana.

Puj. Oin be errazoia esan dozu ta  
Au da goguan artzeko  
Onek agoan eztau bizarrik  
Lan ein barik eskatzeko  
Dirua gura bozu etorri  
Etxean lan egiteko  
Eta len legez izango zara  
Laguna zu niretzako.

Puj. Beti berera joaten da ta  
Nik esan deusat naikua  
Biotza apur bat bigunduizu  
Ta ez izan orrelakua  
Erdi gexorik andria eta  
Zapaldu lagun urkua  
Emen ez dago biotzik eta  
Erruki izan Jaungoikua.

Sard. Bata bestien biar izenez  
Beterik dago mundua  
Uzabandriak nere ustian  
Ointxe dau sekulakua  
Gazte irudiz sendo gorputzez  
Neskametzat modukua  
Onek ta nik gaur laster eingogu  
Aurrerantzako tratua.

Sard. Gaztea naz ta burutasunak  
Dodaz aurrerantzerako  
Ez da sasoi lan egiteko  
Bere janen trukerako  
Zerbait biar dot nere zartzia  
Al ondoen pasetako  
Diru konturik eztau atara  
Uzabandra ona izateko.

Sard. Lartxo eskeintzen dator au emen  
Ni lanian ikus barik  
Ez du nai izango artzia beonek  
Or kriedarik alperrik  
Dana neuretzat izango bada  
Dudan jarriten dot ba nik  
Ez ete dauka loba edo olako  
Ni baiño aurreragokorik

Sard. Zure azken itzak ez dauke lagun  
Nere ustez bape indarrik  
Ez dot nai izan zure etxian  
Beti ibilteko ondarrik  
Len dirua ta etxia ere  
Eskiñi bildurrik barik  
Oragindiño lagun izan da  
Naikua dala bakarrik.

Sard. Baten bateri onen errukik  
Egingo eutsan naiko miñik  
Baiña neskame onek orgaitik  
Ez du egiten zirkiñik  
Emen erruki danok daukagu  
Baiña geuriak egiñik  
Eta bestiak or konpon eta  
Konpondu euren aldetik.

Irig.: Alkarrerri puntua.

Puj. Aitatuko ete dogu oraingo gazterik?  
Sard. Erdiak dagoz orain ia zoraturik  
Puj. Neskatzatan eztago arpegi garbirik  
Sard. Danak dabiltzaz-eta urunez beterik.

Sard. Adiskide egizu gazteria aitatu  
Puj. Zeuk aurretik eginda ezin nei ukatu  
Sard. Geiao danari beti baezpadan parkatu  
Puj. Andiak daoaniam burua makurtu.

Irig.: Amaitu dabe Pujana-k eta Sardui-k. Orain Juraduak erabagia artu bear dau. Sei bertsolari oneitatik bik gelditu bear dabe lenengo saria eta bigarrena eroateko. Orreiki biak emen azkenez ekingo deusie. Eta juraduak erabagia artuten dauen bitartean Dindirrikoak dantzan egingo dabe emen aurrean.

Dindirriko mutil gazte eta neska galant oneik euren dantzak egin ostean Juraduak emon dauen erabagia esango dot. Azkenerako gelditu dira Azpillaga ta Enbeita. Ona aurrean agertuko dira eta biak burrukan egin bearko dabe ia nok eroan Bizkaiko txapel aundia eta izena. Erdi ona mesedez.

Irig. Berriotxoia santu noz egingo dabe?

Azp. Oingo eginda balego askozaz e obe  
Bizkaian santuakin gera onen probe  
Zelan gaude Bizkaiko patroirikan gabe.

Irig. Saria jasoteko baukazu biotza?

Azp. Animua emoteko ori bada itza  
Kopa ederra dago daukagu bakoitzak  
Ta emango diote obia danentzat.

Irig. Bertsolari onari euskaldunak txalo

Enb. Txarraizetan esan bez deitzen deutse malo  
Ondo egin bearra etor dan ezkeru  
Zerbait atondukogu astiro astiro

Irig. Norentzat izango da aurtengo txapela?

Enb. Zuk bakizu naizela naikoa umilla  
Txapela onentzat gaur izan dedilla  
Naiz dala ezkondua naiz izan mutilla.

Irig.: Temako bertsoak. Azpillaga izango da andregai diruduna eta motza daukana eta Enbeita galanta baiña dirubakoa daukana.

Azp. Au da guretzat alako zailla  
Urren ipiñi diguna  
Usterik gabe ezkontziakin  
Etorriko zat fortuna  
Nere andregeia itxusia da  
Baño guztiz diruduna  
Ederra izanda zertarako det  
Doterik ez dadukana.

Enb. Gauza ederra mundu onetan  
Gizonentzat maitasuna  
Maitasun orrek emoten deusku  
Etxietan poztasuna  
Andrea barriz galant on arren  
Ezpadau gura izena  
Nai izan arren ezta ondo or  
Ibili izango gizona.

Azp. Nere lagunak zer esan duan  
Danak dezue aditu  
Andregai ona dadukala ta  
Barruan ezin kabitu  
Nik itxusia baño ederki  
Alga baten paseatu  
Diru bearrez arkitzen bada  
Neri ez beintzat eskatu.

Enb. Diru artian aiskide maite  
Egiten dozu zuk amets  
Gaur egunian beste askotxok  
Egin oi daben legez  
Zuk nai badezu bizi ni legez  
Maitasun ta zorionez  
Diruaz barik ezkondu adi  
Maite zaitunaz biotzez.

Azp. Nere lagunak andrageientzat  
Badu arrazoi legunik  
Baiña guri gaur ezin esan du  
Diruen jabea danik  
Ezta munduan sortu oraindik  
Ezta sortuko geroztik  
Diru ederra edukitzia  
Baño obekiyo danik

Enb. Nere laguna ikusten juat  
Diru zaletxu bat dana  
Diruagaitik alde batera  
Itxiten dau maitasuna  
Gogoan artu eik Azpillaga  
Enbeitak gaur dirautsuna  
Ezkondukoteko maitasuna da  
Diru lagunik onena.

Azp. Onen epoka etorri zaten  
Dirua du gogotikan  
Nere andregeia itxusia da  
Eztago zer esanikan  
Baño nik ez det bat ikusitzen  
A baño politaorikan  
Diruagatik ez da bakarrik  
Maite det biotzetikan.

Enb. Nere laguna astiro astiro  
Bidia artuten dua  
Lentxuago or diruarekin  
Egin dau ames gozua  
Maitasun billa asi da eta  
Neure ustez ondo dua  
Onek nai ditu maitasuna ta  
Bigarrentzako dirua.

Azp. Dirua alde batera artuta  
Ez det saltzen maitasunik  
Zuei etzaizuela gaur aztu  
Nik esaten ditudanik  
Nere andregeia laster artuko  
Det emaztetzat urrendik  
Ez da munduan sortu gizonik  
Ni añan biziko danik.

Enb. Gauza erreza da mundu onetan  
Neskari begiratzia  
Orren erreza ezta adiskide  
Gustokoa aurkitzia  
Nai nukena da andria aurkitu  
Nere biotzen jaubia  
Geure bizitzan izan dagigun  
Zoriona ta bakia.

Irig.: Puntua alkarrerri:

Azp. Nik andregai itxusia ta Enbeita-k ona

Enb. Ortarakoxe beintzat etorri gara ona

Azp. Naikoa da nerekin daukadan fortuna

Enb. Zuretzat motza eta nitzat galant ona.

Enb. Ainbat milla daukagu gaur guri begira  
 Azp. Bertsuak entzutera etorriak dira  
 Enb. Euskalzaliak beintzat dagoz zenbat gura  
 Azp. Pozik egin dezatela gaur Bilboko jira.

Irig.: Eta onegaz amaitu dabe. Orain momentu baten juraduak erabagia artuko da nor dan Bizkaiko txapelduna. Egon zai apurtxo baten.

Artu da erabagia. Bata besteagandik ezta diferentzi andirik egon. Baiña puntu bate gaitik Enbeita-k irabazi dau. Oraintxe bertan D. Nazario Oleaga Euskaltzaindiko sekretario jaunak emongo deutso kopea, eta gaiñera iru milla peseta Bizkaiko Ahorro Kaxearnak eta txapela ipiñiko deutso. Txapela ipinten deutsan bitartean, gaiñerako guztiak erantsi egin bear dogu bertsolari andiaren aurrean.

Ia ba, erdu ona aurrera Enbeita jauna Bizkaiko Diputaziñoaren kopea artzen, baita iru milla peseta ta txapela.

Oleaga jaunak txapela ipiñi deutso. Guztiak erantsi bere aurrean.

Bigarren saria, Bizkaiko Ahorro Kaxearren kopea eta milla peseta, Azpillaga bertsolari andiari.

Eta orain bertso bana botako deutsue agurrezkoa, gaiñerako bertsolari guztieri milla peseta baktoxari emonda gero.

Enb. Aspertu gura ta ezin aspertu  
 Biotza daukat erdi bi  
 Ainbeste milla anai arreba  
 Emen adi ikusirik  
 Bizkai Gipuzko Araba Napar  
 Emen dira gaur baturik  
 Anaitasunik ederrenian  
 Alkarraz besarkaturik  
 Ginebran ere ezta izango  
 Era ontako batasunik  
 Andik bakia egin nai dabe  
 Besterenez jaubeturik  
 Eztagolako Arenalian  
 Dagoan anaitasunik  
 Gure biotzak gañezka dagoz  
 Euskeraz dana egiñik  
 Mundu onetan bakerik ezta  
 Bakotxai beria emon barik  
 Eta egizko maitasun barik  
 Ez dagolako bakerik  
 Agur danori jarraitu daigun  
 Alkar maite maite izanik.

Azp. Bertso onekin Bizkaitar danak  
 Maitekor ditut agurtzen  
 Ta Euskaltzaindiko agintaria  
 Biotzetikan eskertzen  
 Ikusmen motza euki badegu  
 Asi gerade argitzen  
 Ikusten degu euskera dala  
 Gure premiñan aurkitzen  
 Amatasuna deusagulako  
 Aspalditikan ukatzen  
 Guri Jainkuak emandakua  
 Arinka doiala galtzen  
 Geure errua ezaguturik  
 lanari goiaz oratzen  
 Bide onetik jokutzen  
 Gaxo dagona osatzen  
 Danok lenbailen ikusi daigun  
 Gure euskera loratzen.

Irig.: Eta beste laurak bana banaka agurra botako dabe. Ezta berezi lauretatik gelditu dan aurrenengo.

Sard. Gauza onena momentu ontan  
 Dot nik txapela kentzia  
 Ta esker beroak Euskaltzaindiai  
 Biotzetik emotia.  
 Gaztiak gera aurretik dogu  
 Oindik bizitza luzia  
 Gure buruai txarto etxatorko  
 Emen guk gaur ikasia  
 Biotzetikan agurtzen joat  
 Kanpeoi nere osabia  
 Datorren urtez ikusikogu  
 Zein ete garen obia.

Era ontako egun gozoak  
 Bialdu deiskuzan sarri  
 Guk euskaldunok biotz biotzez  
 Maite deusagu alkarri  
 Besarkada bat artu guztiok  
 Maitasunen ezaugarri.

Alb. Gaztetan nintzan ni ere umezurtz  
 Guraso onak galduta  
 Geroztik geiao nere barrenia  
 Emen dabil urratuta  
 Sarri ta askotan aurkitua naiz  
 Prezio gabe salduta  
 Gaur be daroat txoko ontatik  
 Biotza erdibituta.

Puj. Bertan txapela jarri deutse ta  
 Geien egin dabenari  
 Agur eginda itxi deiogun  
 Ekarrri dogun lanari  
 Agur entzule biotzkeuak  
 Lagun eta epaikari  
 Agur abade fraile guztiak  
 Eta agur bertsolari  
 Sarri askotan biotz biotzez  
 Eskatu Goiko Jaunari

Orm. Politikiai erru emanda  
 Danak erderaz bakarrik  
 Lotsagarria baiño ezta ikusten  
 Baserrietan besterik  
 Ez al dakie gure euskerak  
 Ez dauela orren erurrik  
 Esan leiteke dagozala gaur  
 Danak emen zoraturik.

Irig.: Eta onegaz amaitu da gaur Bizkaiko bertsolarien bigarren sariketea. Datorren urtean alegiñak egingo doguz irugarrena aurten baiño oraindiño obeto egiteko, ia euskeraren etxepare idazle zarrak esaten eban legez, plazara ateraten dan. Ia ba datorren urterako guztiak errietan euskeraz bakarrik egiten dogun. Eta beste barik guztiori agur eta datorren urterarte.